

1. **Plataforma edo sareko jarduerak:** Gure funtsezko jarduerarik garrantzitsuena aplikazio bat garatzea da, non aholkularitza bat eskaintzen dugu. Appa gure enpresak sortuko genuke, kanpoko laguntzarik gabe.  
Hortaz aparte webgune bat izango genuke *Garbee* promozionatzeko, eta aplikazioan ematen diren zerbitzu batzuk hedatzeko. “Kanalak” atalean azaldu dugun bezala, beste sare sozialeen bitartean iragarkiko genituzke gure zerbitzuak.
2. **Arazoak konpontzea:** Gure eginkizuna azalaren itxuraz arduratzen den jendeari laguntzea da, gustura gera daitezen. Gaur egun skincare oso ezaguna da, baina askotan jendeak modan dauden produktuak erosten ditu, bere azalarako egokiak diren jakin gabe. Gure testekin eta gure laguntza pertsonalatuarekin gure bezeroek beren errutina ideala aurkitzea espero dugu.

Alderdirik estetikoenez gain, dermatologo- eta medikuntza-talde bat dugu, gure bezeroek erabil dezaketena. Gainera, IAREN laguntzarekin, larruzaleko orbanak aztertzeke gai gara, arriskutsuak diren ala ez zehazteko.

3. **Ekoizpena:** Ekoizpena kanpoko enpresen esku utziko dugu, ondoren guk haien produktuak saltzeko. Beste uneetan aipatu dugun bezala, guretzako garrantzitsua da guk saltzen ditugun produktuak gure printzipioekiko koherenteak izatea, eta hori dela eta, produktu guztiak veganoak, jatorri naturalekoak, “cruelty-free”-ak, eta azalarako onuragarriak izango dira. Hauek sinbolo desberdinen bidez bereiziko ziren dendan.

Listado de las marcas que no testean elaborado por la ONG Te Protejo

